

Iparraldeko fraideak

El mes pasado pudimos ver cómo se organizó la vida monacal en Iparralde a partir del siglo XII; ahora nos corresponde echar una mirada a la introducción y desarrollo de las Ordenes Mendicantes en esa Euskal Herria norepirenaica en los siglos que siguieron. Es una historia notablemente distinta a la precedente de los monjes.

Aurrekoan ikusi genuen nola Iparraldeko gizonezkoen Monasterio bakarra XII. mendean sortutako Lehentzeko premontratarrena izan zen, eta, hala nahiago bada, denbora labur batez Baionako San Benat-en beneditarrena ere. Iparraldean zereginik izandako beste Monasterioak Euskal Iparraldetik kanpokoak izan ziren, erbestekoak alegia. Argibide horien osagarri, oraingo honetan monjeen ondoko fraide eta kleriko erregularren (jesulagunak ditut batez ere gogoan) historiak jardungo dut.

Iparraldeko Eskeko Ordenak (XIII-XVIII. m.)

Dagoeneko ikusita daukagu nola Eskeko Ordena hauek XIII. mendean bertan Nafarroa eta Araban bere Komentuak eraiki zituzten; Bizkaia eta Gipuzkoa geroago etorri ziren. Iparraldean, ordea, Eskekoak lehen ordu hartakoak dira, bertara atzerapen handirik gabe iritsi zirenak. Hori berritasun historiko bat izan zen garai eta lurralde horretan.


Kostaldeko Lapurdi suertatu zen Komentuen garapen hartan erabateko nagusitasuna izan zuena, XIII.etik bertatik hasi eta XVIII. mendea arte, eta hor ere Baiona izan zen bertako Komentu gehienak eraikitzeko hiria. Hamarkada batzuen buruan, Frantziako Hexagonoan lau Komentutaraino izandako 28 Hiri nagusien artean aurkituko dugu Baiona.

Badirudi 1225 inguruan domingotarrak Baionan zeudela, eta ziurki dakigu frantziskotarrei 1242an Apezpikuak eta Katedraleko Kabildoak lur jakin batzuk eman zizkietela Komentua bertan jar zezaten. Bi Komentuok Baiona Ttipian eraiki ziren, orduko harresien barnean, karmeldarrak (1264) eta agustindarrak (1304) harresietatik kanpo geratu ziren bitartean, haiek Tarride auzoan eta hauek San Leon-en.

XIII. mendea sasoi ederra izan zen Baionan. Komentuen hau Hiriko indar sozialen zeregina izatera heldu zen: eliz jendearena, noski, baina baita bertako klase kontrajarriena ere ("aitor-seme burgesena" eta "herritarrena").

Aro Modernoan gizonezkoen beste hiru Komentu-eraikuntzek osatu zuten Erdi Aroko hori guztia. Baionako kaputxinoen Komentua aipatu behar da (1615), eta Lapurdiko Hiriburu horretatik kanpo, beste bi herrietan bana: bata Ziburuko frantziskotar errekoletoen (1611) eta bestea Maule-ko kaputxinoena (1669).

Honela osatu zen Iparraldeko fraide-komentuen sarea, baina, bat izan ezik, denak Lapurdin zeuden. Frantziako Iraultzak itxi arazi zituen arte berean iraun zuten (1792), eta gaur egun, gainerakoak desagertu badira ere, Ziburu/Donibane Lohizuneko portuan ikus daiteke errekoletoen eliz eraikina, zutik baina itxita.



Ziburuko frantziskotar errekoletoen honek oihartzun bereziak izan ditu euskal kulturaren historian, Villasantek idatzitakoaren arabera, bertan biltzen baitziren Donibane-Sarako idazleak (Materre, Etxeberri Ziburukoa, Axular eta abar).

Pertsonaia historikoak

Fraide haietatik badago bat edo beste Baionako historialarien oroimenean bizirik geratu denik: Bertrand Baionakoa (...1255...) eta Godin Kardinala (c. 1260-1336).

Bertrand Baionakoa frantziskotarra zen, frantziskotarren bigarren belaunaldikoa eta teologoa. Adimen azkarra, maisu eskolastiko eta eztabaida-hizlari aparta. Ospe handia irabazi zuen auzi batean parte hartzea suertatu zitzaiolako, Eskekoen eta apaiz diozesitarren arteko eztabaida sonatuan, alegia (1255). Eskeko Ordenen pobretasunaren zilegitasun ebanjelikoa dudatan jarri nahi izan zuen Parisen G. de St. Amour-ek, eta garaiko teologo handienak hartu zuten parte sesio haietan (S. Bonaventura, Sto. Tomas, etab.). Bertrand Baionakoak defendatu zituen Eskekoen eskubideak Aita Santuaren aurrean. Hark erabilitako dialektika zorrotzak harri eta zur eginik utzi omen zituen entzuleak.

Guillaume Godin kardinala, oraindik ere Baionan oroitzapen ona duena, domingotarra zen, eta hiriko semea hau ere. 1310 sutearen ondoren, Godin-i zor zaio Katedrala berrizatzeko eman zuen ganorazko laguntza. Eta era berean hiriko domingotar komentu handiari eskaini ziona, berau gertatu baitzen Aita Santuaren aurrean behin eta berriz Baionako gorabeheren konpontzaile. Bestalde, bertako kul-

turaz ere arduratu zen eta badakigu, adibidez, hainbat liburu utzi ziola bere hilburukoan Baionako Apezpikuari (1336).

Jesulagunak Baionara?

Aro Modernoak gizonezkoen Ordena berriak ekarri zituen XVI. mendetik aurrera. Horien artean jarri behar da Jesusen Lagundia.

Historialarien artean arreta berezia irabazi du Baionarako jesuiten asmoak (Hourmat, Moreau). Ahalegin handien ondoren, zergatik ez zuten lortu jesulagunek Baionako Hirian gertzea? Arrazoiak ez ziren izan bakarrik, Gasteizen bezala, garaiko tokiko tirabira sozialak, baikik eta herriak Baionan zuen Kolegioaren interesa zegoen tarteko (1598...); bestalde, jesuiten etorrerarena jansenista eta jesulagunen arteko Frantziako eta Baionako lehiarekin nahasitako arazoa gertatu zen.

Ez da ahaztu behar Jansenius-ek berak, eta beronen lagun jansenistek (Saint-Cyran Abade baionesa tartean zela) lan handia eginda zutela Baionan, hain zuzen Kolegio hartara Etxaus Apezpikuak ere lagunduta etorri baitzen Kolegio-zuzendari Jansenius (1610-1612).

Azken buruan, jesulagunen hamarkadatarako ahalegina hutsean geratu zen, eta lekuz kanpokoa gertatu, inguru politikoa oso gaiztotu zelako (1657): ez zuten izan Egoitza edo Ikastetxerik irekitzeko modurik, nahiz eta ez zen faltatu jesuita euskaldunik, eta horien artean euskal idazle bat ere: Beñat Gazteluzahar (1614-1701), ziburutarra baina bere jesulagun-bizitza Pauen eman zuena.

Joseba Intxausti

Galderak eta oharra: 610273580